

## **IDEIA-JASA**

Ideia-jasaren helburua zera da: adierazpen askatasuna nagusi den giro informal bat sortzea, estereotiporik gabekoa, permisiboa eta arduragabea, sormena bultzatu eta ideia originalak sorraraziko dituen.

Teknika hau irudimen sortzailea garatzera eta lantzera zuzendurik dago; hain zuzen ere, irudimen sortzailea berrikuntzen, aurkikuntzen edo ekarpen berrien iturburua da. Oso teknika erabilgarria da edozein gairi buruzko ideiak emateko eta haiek ebaluatzeko.

Hasteko, gaia azalduko da. 10 minutuz, taldekideek gai horri buruzko ideia ahalik eta gehien emango dituzte. Taldea oso handia bada, talde txikitan banatuko da. Idazkariak ideia guztiak jasoko ditu (talde bakoitzeko idazkariak, talde bat baino gehiago badago), eta taldekideek ez dute haiei buruzko kritikarik egingo.

Teknika honen oinarrizko printzipioa zera da: zenbat eta ideia gehiago egon, orduan eta handiagoak izango dira ideia on bat aurkitzeko aukerak. Garrantzitsuena ez da kalitatea, kantitatea baizik, eta horregatik, debekatuta dago taldekideek ideiak ematen dituzten bitartean haiek ebaluatzea edo kritikatzeta.

Taldekide guztiek beren ideiak aurkeztu dituztenean hurrengo fasea hasiko da; hau da, ekarpenak ebaluatzeko fasea.